



Arartekoaren 2023R-9-23-O Ebazpena, 2023ko martxoaren 23koa. Honen bidez, Bizkaiko Foru Aldundiari gomendatzen zaio berma dezala adingabe atzerritarrak premiazko harrera-programan segurtasun- eta duintasun-baldintzetan hartzen direla eta behar bezala osa dezala baliabide dibertsifikatu eta egokien sare bat, pertsona horien askotariko premiei erantzuteko, arreta berezia jarriz jokabide-arazoak dituzten nerabeentzako programa espezializatuei.

Aurrekariak

2021eko azken egunetan, herritar batzuek kexa bat jarri zuten erakunde honetan. Bada, kexa haren testuinguruan, Arartekoak informazioa jaso zuen Viveroko egoitza-baliabidean zeuden baldintza eskasei buruz. Egoitza hori Galdakaon dago (Bizkaia), eta familia-erreferenterik ez duten adingabe atzerritarrei ematen die ostatu, abenduaren hasieran Zornotzako (Bizkaia) lehen harrerarako zentroan piztutako suteaz geroztik. Salaketaren errealitatea egiaztatzeke asmoz, Arartekoak ofiziozko jarduketa bat abiatzea erabaki zuen. Nolanahi ere, ez dugu ahaztu behar erakunde honek jarraipen hurbila egiten diola, duela urte askotatik, babesgabe dauden haur eta nerabeentzako harrera-baliabideen euskal sarearen egoerari, eta, bereziki, arretaz behatzen dituela familia-erreferenterik ez duten adingabe atzerritarrentzako programa espezializatuak eta baliabideak.

Espedientea ebazteko, Arartekoak honako jarduketa hauek burutu ditu:

- 2022ko otsailaren 16an, zentroa bisitatu genuen, eta arduradunarekin hitz egin.
- 2022ko otsailaren 23an, bilera egin genuen Gizarte Ekintzako Sailaren Haurren Zerbitzuarekin.
- 2022ko martxoaren 29an, informazioa eskatu genion sail horri, honako gai hauei buruzko dokumentazioa bidal ziezagun: esku-hartzea (proiektua, atxikitako giza baliabideak, protokoloak, tutoretzak...); zerbitzuaren kudeaketa (zerbitzua ematen duen erakundearekin sinatutako hitzarmena, hitzarmenean jasotzen diren baldintzak ondo betetzen direla ziurtatzeko jarraipena –memoriak, egindako ikuskapenen aktak– eta abar) eta harreran hartutakoen dokumentazio-prozesuari buruzko kontu zehatzak.
- 2022ko uztailaren 12an, erantzuna jaso genuen, eta emandako informazioa aztertu.
- 2023ko urtarrilaren 5ean, berriro egin genuen bisita zentrori, abenduaren hasieran zentroan izandako sutearen ondoren.

2022ko abenduaren bigarren hamabostaldian, hilaren 15etik 16rako gauean beste sute bat piztu zela jakin eta gero, Arartekoak telefonoz deitu zion zentroko zuzendaritzari, gertatutakoez, hartutako erabakiez eta egoiliarren nahiz langileen egoeraz galdezka. Elkarrizketa hartan, zerbitzua ematen zuen elkartearen erabakiaren berri eman zioten Arartekoari: une hartan foru-aldundiarekin hitzartuta



zituen egoitza-baliabideak kudeatzen ez jarraitzea erabaki zuen, eta adierazi 2022ko abenduaren 31n utziko ziola zerbitzua emateari.

Izapidean, erakunde honek jakin zuen foru-zerbitzuak Zornotzako zentroa berriro irekitzeko asmoa zuela (2023ko lehen hiruhilekorako zegoen aurreikusita) eta aurrekoaz bestelako ereduaz ezarriko zuela lehen harrerarako, logela bikoitzetan banatutako 42 tokirekin (21 toki 2023ko martxoan bertan egongo ziren erabilgarri, eta beste hainbeste ekainetik aurrera).

2023an premiazko harrera-programa garatzeko ireki den agertokia baloratu ondoren, erakunde kudeatzaile berri bat egongo baita (hitzarmen berria, esku hartzeko proiektu berria, heziketa-taldearen aldaketa posibleak...), aurreikusitakoaren arabera Zornotzako zentroko obrak amaituko baitira eta adingabeak jatorrizko lekura itzuliko baitira, Arartekoak nahiago izan du babesgabe dauden adingabeei (kasu honetan, atzerritarak dira) lehen harrera edo premiazko harrera egiteko programa egoki bat atontze aldera oinarritzeko jotzen dituen elementuei heldzea bere analisian eta, ondorioz, ebazpen honetan. Hala, informazioa eskuratzen duenean eta orain aipatuko ditugunak baino alderdi gehiago ikertzen dituenean, beste alderdi horien balorazioa egingo du, Viveroko zentroak irekita jarraituz gero egingo duen jarraipenean.

Gogoetak

1. Haurren Eskubideei buruzko Konbentzioak xedatzen duenez, haur eta nerabe oro da eskubideen subjektu, jatorria, arraza edo kondizioa edozein izanik ere, eta, hortaz, garapen beterako, hezkuntzarako, osasun hobetarako, babeserako eta abararako eskubidea du. Espainiako Estatuak sinatu zuen eta barneko ordenamendu juridikoaren zati den nazioarteko itun hori aplikatzeko, haurrak babesteko zenbait lege onetsi dira, gaur egun indarrean daudenak (estatalak nahiz autonomikoak), eta, hortaz, administrazio guztiek hartu behar dituzte legeok aintzat, bakoitzak bere eskumenen esparruan.

Testuinguru horretan, lehendabizi azpimarratu egin behar dugu Bizkaiko Foru Aldundiak berehala hartzen dituela bere lurraldera heldzen diren neska-mutil atzerritar guztiak, eta arreta ematen diela. Adinez txikikoak direla egiaztatuta (daukaten dokumentazioaren bidez edo Fiskaltzaren dekretuaren bidez), Foru Aldundiak bere gain hartzen du haien tutoretza, ordenamendu juridikoan ezarritakoari jarraikiz.

Haur eta Nerabeak Zaindu eta Babesteko otsailaren 18ko 3/2005 Legea garatzeko, bat etorrira harrera-modalitateei buruzko nazioarteko jarraibideekin, gizarte-babesgabetasuneko egoeran dauden haur eta nerabeentzako harrera-egoitzak arautzen ditu uztailaren 8ko 131/2008 Dekretuak. Hala, zerbitzuak, baliabideak eta zentroak konfiguratu dituzte, bizitzeko eta osotasunean garatzeko tokiak edo duintasunez bizi eta hazteko gune seguruak izan daitezten. Hortaz, langile/haur ratio egokia duten baliabide txikien alde egiten du dekretu





horrek. Izan ere, horrelakoetan, konfiantzazko eta erreferentziazko harremanak sortzen dira, eta horrek aukera ematen du edozein familiak ematen duenaren pareko bizi-euskarria, bidelaguntza afektiboa eta hezkuntza-laguntza emateko. Haur eta nerabe guztientzat da hori horrela, haien jatorria, arraza eta bestelako baldintzak gorabehera.

Labur-labur eta dokumentu honen helbururako, interesgarria da gogoratzea dekretuak egoitza-egituren tipologia bat ezartzen duela, baita programen tipologia zabal bat ere, haur eta nerabeen askotariko premiei eta premia zehatzei erantzun ahal izateko:

Programen tipologia:

- Programa orokorrak: premiazko harrera-programa, oinarrizko programa orokorra, emantzipatzeko prestatzeko programa eta emantzipazio-programa.
- Programa espezializatuak: jokabide-arazoak dituzten nerabeei arreta emateko programa espezializatua eta jokabide-arazo larriak dituzten adingabeei laguntza trinkoa emateko programa espezializatua.
- Aukerako programak: lehen haurtzaroari arreta emateko oinarrizko programa, haurdunaldiko fase aurreratuan dauden nerabeei eta ama nerabeei arreta emateko programa eta foru-aldundiek adingabeen beharrian espezifikoki berrien premiari erantzuteko ahalbidetzen duten beste edozein programa.

Egoitza-egituren tipologia:

- Egoitza-zentroak (11 eta 14 leku artean)
- Harrera-pisuak (10 leku gehienez)
- Emantzipatzeko prestatzeko zentroak (9 eta 30 leku artean)
- Emantzipatzeko pisuak (8 leku gehienez)

Bizkaian, Gizarte Ekintzako Sailak, babesgabe dauden haur eta nerabeen egoitza-harrerarako baliabide-sarearen barruan, baliabide espezifikoki batzuk dauzka familia-erreferenterik gabeko atzerritarrentzat. Azpi-sare horrek aipatutako programa orokor guztiak eskaintzen ditu: zentro bakarra dago premiazko harrera-programa garatzeko, baina haur txikientzako harrera-pisuekin osatzen da, oinarrizko programa orokorraren barruan; halaber, emantzipatzeko prestatzeko programak eta emantzipazio-programak garatzen ditu hainbat egoitza-baliabidetan (zentroetan eta pisuetan). Oraintxe bertan, baina, ez dira ari garatzen jokabide-arazoak dauzkaten nerabeentzako programa espezializaturik.

2. Gizarte Ekintzako Sailak espediente honen izapidean emandako informazioaren arabera, Viveroko zentroa 2022ko otsailean irekitzea zen asmoa, bakarrik dauden adingabe atzerritarrentzako premiazko harrera-programa / lehen





harrerarako programa garatzeko; izan ere, programa hori Zornotzan garatzen zen, baina ur beltzak kanalizatzeko eta bide-azpiegiturak konpontzeko lanak egin behar ziren zentro horretan, eta nabarmen eragingo zioten lursailari. Foru-erakundeak, halaber, une hori baliatu nahi zuen Zornotzako ekipamenduaren barne-eremua "birpentsatzeko" eta instalazioetan egin beharreko obrak eta aldaketak egiteko. 2021eko abenduan piztutako suteek, baina, lekualdaketa-planak aurreratu zituzten.

2021eko abenduaren 5ean, sutea piztu zen Zornotzako zentroko logela batean. Une hartan, mutiletako batzuk sareko beste zentro batzuetan birkokatu zituzten; horietako 17 Viveron, premiaz ireki baitzuten zentroa. Abenduaren 13an, Zornotzan garatzen ziren mutil guztiak Viverora iritsi ziren, eta Zornotzako zentroa itxi zuten; hala, **Viveroko zentroak hartu zuen** aurretik Zornotzan garatzen zen **lehen harrerarako programa**, behar besteko denborarako. Une hartan, 57 mutilek zuten tokia Viveron.

Bizkaiko Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundeak (Bizkaiko Foru Aldundiaren Gizarte Ekintzako Sailari atxikitako organismo autonomoa da) eta Landalan elkarteak hitzarmen bat sinatu zuten Viveroko zentroa kudeatzeko, eta, hitzarmenean, 2022rako, 60 toki arrunt (30 tokiko bi modulu) itundu zituzten, baina beste 60 toki zeuden sobera, adingabe asko aldi berean iristen zirenerako (Zornotzako lehen harrerarako zentroa 2021ean kudeatzeko hitzarmenean, antzeko baldintzak zeuden jasota).

2022ko otsailaren 16an, Arartekoa Viveroko zentrorra joan zen lehen aldian, 67 mutilek zuten tokia han. Haietako bost, baina, gazteen justizia-sareko baliabide soziohezitzaileetan barneratuta zeuden, neurri judizialak betetzen, eta, hortaz, neurri judizialean ezarritako aldian, egiazki ez zuten betetzen babes-zentroan (kasu honetan, Viveron) gordetako tokia. Bisitan, Arartekoko taldeak ikusi zuenez, literadun logela anizkUNETAN zeuden adingabeak, ez zeukaten aisialdian egoteko gela komun egokirik, komunen eta dutxen kopurua ez zen nahikoa, ez zegoen hezitzaileentzako gelarik, ez eta tutoretzetarako gunerik ere... Toki-kopuruari dagokionez hitzarmena formalki bete arren, zaila da irudikatzea adingabeei nola ematen zieten arreta 60 + 60 tokiko ekipamendu hartan, uztailaren 8ko 131/2008 Dekretuan eskatutako baldintzetan. Erakunde honek Bizkaiko Foru Aldundiaren Ikuskapen Zerbitzuaren 2021eko abenduaren 14ko akta irakurri ahal izan zuen espedientearen izapidean, eta hor ere jartzen zuen zentro horren bizigarritasun-baldintzak eskasak zirela.

2022ko apirilaren 1ean, Viveroko zentroa kudeatzeko hitzarmena aldatu zen, toki-kopurua egokitzeko: 48 toki arrunt eta soberako 2 toki ezarri zituzten. Kopuru horiek egokiagoak ziren Viveroko zentroa osatzen duten eraikinetan benetan dauden eremuetarako, baina zentroko arduradunek zalantzan jarri zuten okupazio hori ez gainditzea bermatzeko aukerarik zegoen, administrazioak nahitaez hartu behar baititu, premiaz, babesgabetasun-egoeran dauden adingabeak eta horixe delako bakarrik dauden adingabe atzerritarrei lehen harrera egiteko programa garatzeko zentro bakarra.

Erakundeak, bigarren bisitan, okupazioari buruzko datuak eskuratu zituen, zeinetatik kendu egin baitziren gazteen justizia-sistemako baliabideren batean barneratuta neurri judizialak betetzen ari ziren mutilenak, eta, datuok aztertuta, Arartekoak ikusi zuen 2022ko maiatzaren erdialdetik abuztuaren amaierara bitartean bakarrik bete zirela hitzarmenean itundutako okupazio-baldintzak. Gainera, abuztuaren amaierara arte eta egun puntaletan, gainokupazioa 2, 3 edo 8 mutilekoa izan zen, baina, urte hartako irailaren hasieratik aurrera, harreran hartutako mutilen kopuruak azkar egin zuen gora: urriaren 4an, adibidez, 89 mutiko zeuden zentroan (39 mutil, erabilgarri zeuden tokien gaineratik). Horixe izan zen gainokupazio-mailarik altuena. Gainokupazio-maila altuek luzaro iraun zuten, abenduaren 15era arte, egun hartan beste sute bat piztu zelako (Viveron) eta 20 bat lagunengatik logelak kaltetu zirelako.

1. taula. Irailetik abendura bitarteko okupazioa. Hilaren 1ean eta 15ean hartutako pertsonen kop.

Eguna	Hitzartutako tokiak	Hartutakoen kopurua	Erabilgarri zeuden tokien gaineratik hartutako pertsonak
2022/09/01	48 + 2	55 (+ 5 neurri judizialekin)	+ 5
2022/09/15	48 + 2	61 (+ 5 neurri judizialekin)	+ 11
2022/10/01	48 + 2	82 (+ 5 neurri judizialekin)	+ 32
2022/10/15	48 + 2	78 (+ 5 neurri judizialekin)	+ 28
2022/11/01	48 + 2	73 (+ 5 neurri judizialekin)	+ 23
2022/11/15	48 + 2	76 (+ 5 neurri judizialekin)	+ 26
2022/12/01	48 + 2	73 (+ 5 neurri judizialekin)	+ 23



2022/12/15	48 + 2	79 (+ 6 neurri judizialekin)	+ 29
------------	--------	------------------------------	------

Iturria: guk geuk egina, 2023ko urtarrilaren 5eko bisitan lortutako okupazio-datuak oinarri hartuta

2022ko irailaren 1etik abenduaren 15era bitartean, batez beste, hitzartutakoak baino 26 toki gehiago okupatu ziren, eta ez zen neurri egokirik hartu okupazio gehigarri bakoitzak halaberrez ekarritako premiei erantzuteko.

Logela bat gutxiago zegoen erabilgarri, eta mutil batzuk (17) birkokatu ziren, baina, hala ere, harreran hartutako mutilen kopurua ez zen nabarmen jaitsi. Abenduaren 16an, Viveroko zentroan 62 mutil zituzten harreran; abenduaren 31n, 60, eta, 2023ko urtarrilaren 5ean, Arartekoak egun hartan egin baitzuen bigarren bisita zentrorra eta egun hartan amaitu baitzen erretako logela lehengoratzeko obra, 68.

Azken batean, urteko azken lauhilekoan batez ere, Viveroko zentroak hitzartutakoak baino adingabe gehiago hartu behar izan zituen, baina toki horiek ez zeuden hornituta beharrezko baliabide material edo giza baliabide nahikoekin.

Inguruabar horren aurrean, Arartekoak beharrezko ikusten du Bizkaiko Foru Aldundiari gogoraraztea **babes-erakundeak nahitaez bermatu behar duela sareko edozein zentrotan hartutako mutilak baldintza duin eta seguruetan artatzen direla**. Beste batzuetan adierazi bezala, Arartekoak badaki zaila dela baliabide estanko batzuk kudeatzea eskaria aurreikusiezina denean, baina horrek ez du galarazten sistemak neurri batzuk aurreikusita edukitzea, tokiak azkar presta daitezten eta beharizan handieneko uneetan irtenbideak eskaini daitezten, haurrei eskubideetan oinarritutako soluzio egonkorak emateko eta haien interes gorena egoki neurtzeko.

3. Goian azaldutako testuinguruan, eta analisia aurrekarietan jasotako terminoetan zentratuz, erakunde honi deigarria iruditu zaio Ikuskapen Zerbitzuaren jarduketa, gainokupazio handia zegoela egiaztatu duen uneei dagokienez.

Arartekoak egindako informazio-eskaerari erantzuteko, foru-sailak Zornotzako eta Viveroko zentroetan azken lau urteetan egindako ikuskapenen aktak bidali zizkigun (Viveroko zentroaren kasuan, irekita egon zen aldiei buruzkoak ziren aktak). Hala, Zornotzako lehen harrerako zentroan 2019ko apirilaren 10ean eta azaroaren 12an, 2020ko urriaren 27an eta 2021eko maiatzaren 27an, ekainaren 24an eta abenduaren 13an egindako ikuskapenen aktak aztertu ditugu. Viverori dagokionez, aktak 2019ko martxoaren 27koa eta azaroaren 4koa, 2020ko martxoaren 12koa, 2021eko abenduaren 14koa eta 2022ko maiatzaren 10ekoa dira.

Helburu zehatz bat zuten ikuskapenak kontuan hartu gabe (adibidez, zentroen funtzionamendurako ezarritako protokoloak, COVID-19a prebenitu eta eteteko





jarraibideak edo gertakariren baten ostean ekipamenduaren egoera ikuskatzekoak), 2019an eta 2020an bi egoitza-baliabideetara egindako ikuskapen-bisita batzuetan gainokupazioa egiaztatu zuten, Gizarte Zerbitzuen Foru Erregistroan inskribatutako edukierari dagokionez (60 toki Zornotzako zentroan, eta 30 Viverokoan). Horri buruz, honako hau adierazten du aktak:

“En consecuencia, en lo que a ocupación se refiere, el centro ha vulnerado el referido Decreto 131/2008 y no se ajusta a la capacidad que consta en el Registro Foral de Servicios Sociales. Es por ello que se insta al centro a que tome las medidas que considere oportunas al objeto de regularizar el incumplimiento anteriormente descrito y a que, en el plazo de 1 mes, comunique por escrito que ha subsanado el referido incumplimiento o, en su defecto, justificación de las acciones realizadas hasta la fecha y acciones que se va a realizar para subsanar el exceso de ocupación, indicando fechas previstas”

Erantzun horretan, harrigarria da kontuan hartu ez izana baliabide horiek, nahiz eta erakunde pribatu batek kudeatu, erantzukizun publikokoak direla eta foru-aldundiaren jagoletzapean edo tutoretzapean dauden adingabeak hartzeko edo ez hartzeko erabakia ez dagokiola erakunde kudeatzaile horri, foru-zerbitzuari baizik, babes-erakunde publikoa den heinean. Beraz, ez dago erakunde pribatuaren esku “urraketak zuzentzea”, Haurren Zerbitzuak artatzeko hautatzen dituen pertsonak artatzen baititu. Ez dauka ahalik ez lekualdaketak erabakitzeko, ez haur bati arreta ukatzeko, dagokion zerbitzu publikoak hala erabaki badu. Hori bereziki garrantzitsua da premiazko harrera-programan, erakunde kudeatzaileak nahitaez hartu behar baititu (legeak eta zerbitzu publiko arduradunak aginduta) harrera eskatzen duten adingabe guztiak, are gehiago horretarako zentro bakarra egonik.

Arartekoaren ustez, gainokupazioa egiaztatu ondoren, Haurren Zerbitzuari eskatu behar zaio egoera konpondu dezala, eta zerbitzu hori, gainera, Ikuskapen Zerbitzuaren sail berean dago, gizarte-ekintzakoan. Haurren Zerbitzua da, hortaz, aipatutako dekretuak zaindu nahi dituen harrera-baldintza duinak bermatu ahal eta bermatu behar dituen, bai bere eskumena eta erantzukizuna delako, bai egoitza-baliabideen sarean neurriak antolatzeke gaitasuna izan beharko lukeelako, baita babesgabe dauden haurrentzako gizarte-zerbitzuen foru-sisteman ere, erabilgarri dauden baliabide guztiak artatzen diren adingabeen kopurura egokitzeko xedez.

Viveroko zentroak, Zornotzako itxi ondoren, premiazko harrera-programa garatu zuen; bada, aldi hartako ikuskapen-aktek ez dituzte okupazio-datuak azpimarratzen, nahiz eta apirilean eta maiatzean jada adierazi mutilen kopurua handiagoa zela (54 eta 57, hurrenez hurren) apirilaren 1ean aldatutako hitzarmenean xedatutakoa baino. Aldi hartako bisitetan, batez ere, ekipamenduen bizigarritasun-baldintzak gainbegiratu zituzten, eta heziketa-taldea (kopuruan eta kualifikazioan) egokia ote zen baloratu, erakunde pribatuaren eta Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundearen artean sinatutako





hitzarmenean jasotzen den edukierarekin alderatuta. Arartekoaren iritziz, elementu horiek ez dira garrantzi gutxikoak, baina, hasieran esan moduan, familia-erreferenterik ez duten adingabe atzerritarrei lehen harrera egiteko agertoki berri bat abiatuko denez laster, ebazpen honek, oraintxe bertan, programen ahalmenari eta aniztasunari lotutako elementuak azpimarratu behar ditu, gainerako informazioa geroko utzita, Viveroko zentroak zabalik jarraitzen badu erakunde honek egin lezakeen jarraipenerako.

4. Jokabide-arazoak dauzkaten nerabeentzako programan, Karrantzakoan, familia-erreferenterik ez zuten, jokabide disruptiboak zeuzkaten eta beste zentro batzuetan bizikidetzaz zailtzen zuten mutil atzerritarrei ematen zitzaizkien arreta; alabaina, 2019an itxi zuten, eta, gero, sailak sareko zentroi adierazi zien lehen harrerarako programara bidaliko zituela jokabide horiek zituzten mutikoak. Ondorioz, beste baliabide batzuetara edo emantzipatzeko prestatzeko programetara nahiz emantzipazio-programetara deribatuta zeuden mutilak Zornotzako zentrori "itzuli" ziren (Viverokora, une hartan), oso gatazkatsutzat jo zituztelako; ondorioz, baina, adingabe iritsi berriekin nahastu ziren zentroan.

Arartekoak Viverora egindako lehenengo bisitan, 2022ko otsailaren 16koan, 62 mutiletatik 10 beste zentro batzuetatik itzulitakoak ziren. Ez dirudi egoera unean unekoa edo salbuespenezkoa zenik, antzeko egoerak jaso zirelako aipatutako ikuskapen-bisiten aktetan. Horixe da, adibidez, Zornotzako 2021eko maiatzaren 27ko aktaren edo Viveroko 2022ko apirilaren 7ko aktaren kasua (lehenengoan, zentroan hartutako 59 pertsonetatik 13 ziren itzulitakoak, eta, bigarrenean, zentroan hartutako 52 pertsonetatik 17 ziren itzulitakoak). Bizikidetzaz arazoak, erasoak eta mehatxuak sortu ziren, eta horrek izugarri zaildu zuen adingabe bakoitzari egokitutako esku-hartze hezitzaile integral bat gauzatzeko aukera, horrelako esku-hartzeek ingurune segurua behar baitute beti; hau da, segurtasun materiala eta eremuetako segurtasuna ez ezik, segurtasun psikiko eta emozionala ere emango dituen ingurune bat. Heztea zaila da, baina are zailagoa da testuinguru etsai eta bortizetan hazi eta garatzea: beldurrak ez dio tokirik egiten ikaskuntzari. Migratzen duten haurrak bereziki zaugarriak dira indarkeriazko ekintzen edo tratuz txarren aurrean, bai migrazioan, bai helmugako herrialdeetan. Eskudun administrazioek behar diren neurriak hartu behar dituzte babesgabe dauden adingabe guztiak edozein indarkeria motatik edo tratuz txarretatik babesteko, eta, horretarako, programak antolatu behar dituzte, eta helburua lortzeko baliabide nahikoak eta egokituak esleitu.

Lehenengo gogoetan adierazi bezala, babesgabetasun-egoeran dauden haur eta nerabeentzako egoitza-baliabideak arautzen dituen dekretuak egoitza-egituren eta programen tipologia zabal bat zehazten du, haur bakoitzaren premia bereziei erantzunik egokiena emateko xedez. Zentzu horretan, lehen harrerarako programaren edo premiazko harrera-programaren helburuak ez dira emantzipatzeko prestatzeko programarenak bezalakoak. Jokabide-arazoak dauzkaten nerabeentzako programa espezializatuek, gainera, hezkuntza-arreta trinkoagoa behar dute, eta, beraz, hezitzaile gehiago eta neurri espezifiko batzuk izaten dituzte. Nolanahi ere, sistema bera konfiguratu behar da, oro har, premia





desberdinei erantzuteko askotariko baliabideekin, eta, lehenengo gogoetan adierazi bezala, Bizkaian familia-erreferenterik ez duten adingabe atzerritarrak artatzen dituen sareak ez dauka, oraintxe bertan, jokabide-arazoak edo jokabide-arazo larriak dauzkaten nerabeei arreta emateko –nahitaezko– programa espezializaturik. Ez dirudi, halaber, sare orokorreko programa espezializatuertarako deribazioa oro har erabiltzen denik.

Erakunde honek Bizkaiko lehen harrerarako programari hainbat urtez egindako jarraipenaren uneren batean, errealitate hori ikusirik, zegokion administrazioak gabedia hori azaldu zuen, adieraziz sarean “masa kritikoa” falta zela oro har; hots, jokabide arazotsuak zeuzkaten mutiko atzerritarren kopurua ez zela nahikoa. 2022ko otsailean jada, 10 mutil itzuli ziren beste zentro batzuetatik Viverokora, eta horrek iradoki dezake une hartan jada bazeudela mutilon premia bereziei erantzungo zien zentro espezifiko bat irekitzeko inguruabarrak.

5. 2018ko maiatzean, Arartekoak gomendio bat eman zuen, Zornotzako zentroan garatzen zen lehen harrerarako programari buruzkoa, orduantxe amaitu baitzen familia-erreferenterik gabeko adingabe atzerritarrak hartzeko baldintzen jarraipena (urte bereziki zaila izan zen, iritsieren kopuruak oso gora egin zuelako). Orduko hartan, egoera espediente honen izapidean aztertutakoaren antzekoa izaki, Arartekoak adingabeen arretari buruzko oinarrizko kontuak gogorarazi zituen, eta, besteak beste, honako hau gomendatu zion Bizkaiko Foru Aldundiaren Gizarte Ekintzako Sailari:

1. *Bizkaira familiarik gabe heltzen diren adingabe atzerritarrei arreta emateko baldintza duinak berma ditzan. Hau da:*
 - a) *Egoitzetako plazen kopurua pixkanaka igo dezan, adingabe guztiak hartzeko nahikoak izan daitezen.*
 - b) *Gazte bakoitzaren beharretara ondoen egokitzen diren programak abian jar ditzan.*
 - c) *Dekretu arautzaileak ezartzen dituen baldintzak bete ditzan.*
2. *Zornotzako lehen harrerako zentroak hasieran izandako baldintzak berreskura ditzan; horretarako, plaza kopurua murriztu beharko da, 40 pertsona gehienez hartzeko.*

Une honetan esku artean dugun informazioaren arabera, Bizkaiko Foru Aldundiak bide horri ekin dio dagoeneko, Zornotzako zentroan aldaketak egin baititu. 42 toki daude, lehen harreraren helburuak lortzera bideratuak guztiak. Halere, adingabe asko aldi berean iristen diren aldiei aurre egiteko neurri osagarriak (zentroan gainokupazioa eta metaketa saihesteari begirakoak) baieztatzea falta da, eta, era berean, aktibatzeke daude jokabide-arazo handiak dauzkaten mutilen premiei erantzun egokia emateko baliabide espezializatuak.





Hori dela-eta, Viveron azken urtean garatu den lehen harrerarako programaren esperientziari erreparatuta, eta Zornotzako zentroari hainbat urtez egindako jarraipenaren ondorioz pilatutako ezagutzarekin, Arartekoak 2018ko maiatzaren 15eko 1/2018/RGO Ebazpena gogorarazi nahi dio Bizkaiko Foru Aldundiaren Gizarte Ekintzako Sailari, eta, bat etorrita otsailaren 27ko 3/1985 Legearen –erakunde hau sortu eta arautzekoaren– 11.b) artikuluan xedatutakoarekin, honako gomendio hau egiten du:

GOMENDIOA

1. Berma dezala adingabe atzerritarrak lehen harrerarako programan segurtasun-eta duintasun-baldintzetan hartzen direla, babesgabe dauden haurrentzako baliabideak arautzen dituen araudiari jarraikiz. Horretarako, batetik, gainokupazio-egoerarik ez sortzea bermatu behar da, eta, bestetik, baliabide nahikoak eta antolaketa eraginkorra izango dituen sistema bat antolatu behar da, eskari-intentsitate handiagoko aldiei aurre egiteko neurriak azkar aktibatzea ahalbidetuko duena.
2. Garatu ditzala jokabide-arazoak edo jokabide-arazo larriak dauzkaten nerabeentzako programa espezializatu berriak, mutiko horietako batzuen premia bereziei erantzun ahal izate aldera, eta osa dezala mutikoon askotariko premiei erantzuteko baliabide dibertsifikatu eta egokien sare bat.

